

Bermeoko arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa (I)

Eneko Barrutia

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala:
barrutia5@euskalnet.net:

Abstract

This is the transcription of a recording made from a fisherman from Bermeo, in order to enrich the corpus of popular Basque language.

Laburpena

Herriko euskararen corpora gehitu guran, Bermeoko arrantzale bati egineko grabazio baten transkripzioa da berau.

Keywords: transcripts, the variety of fishermen, oral corpora, Biscayan Basque.

Hitz gakoak: transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpora, bizkaiera.

Herriko euskararen corpora gehitu guran, Bermeoko arrantzale bati egineko grabazio baten transkripzioa da berau.

2000. urtean argitaratu nuen *Bizkaiko arrantzaleen hiztegia. Léxico marinero vizcaino* liburua. Liburu horretan Bermeoko hainbat lekuko izan nuen eta eurretari bat Alejandro Markaida izan zen, 1926an jaioa. Markaidari hogeita bi ordu inguru grabatu nizkion eta berarekin izaneko lehenengo grabazioaren edo lehenengo orduaren transkripzioa da honako hau. Grabazioaren data 1990eko urtarrilaren 23a da.

Arrainen gaineko galdeketa da. Baxurako patroia izanekoa da Markaida eta bere ofizioko arrainak ondo ezagutzen dituen arren, beste batzuk ez dakizki edo ez ditu ondo ezagutzen, arrastan atrapatzen direlako edo kostakoak direlako. Liburu bateko argazkiak erakutsi nizkion arrainak identifikatzeko eta artikulu-liburuetatik ateratako Bermeoko berbak proposatu nizkion, Mundakako arrantzaleengandik jasotako beste izen batzuekin batera. Hurrengo grabazioetan denetariko arloak lantzen dira, ez arrainak bakarrik: itsasontzi motak, aparrioak, sareak, eguraldia eta abar.

Artikulu honen helburua bikoitza da. Alde batetik, arrantza-mundua aztertu nahi duenarentzat lagungarri izan daiteke. Bestetik, eta hauxe da nire helburu nagusia, herriko euskararen corpusaren lekuko izan daiteke. Corpus hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta errazago atera ahal izango ditugu era askotariko ikaskizun eta ondorioak.

Grabazioan entzuten den guztia transkribatu dut, bai informanteak esanekoa, bai neuk esanekoa. Neuk esanekoa letra etzanez ageri da eta lekukoak esanekoa letra beltzez. Batzuetan parentesiak erabili ditut, parentesi barruko testua ez dudala hain argi ulertzen adierazteko. Benetako dokumentua grabazioa bera da

eta argitaratzen denean hobeto ulertu eta zuzendu ahal izango da parentesien esangura.

Han-hor-hemen berbaren baten gaineko ohartxo ipini dut. Gehienak hizkerari dagozkio, eta gutxi batzuk esangurari edo gaiari.

Aikomen orain urte batzuk Alejandrok eta biok edukiko elkarrizketa.

1. Alejandro Markaida

1990-I-23

1 A

.. atunetan, beseuten da órretan, oseake bajúrén, orreri esaten dxatxo bajurié. Da ónek ondarrutarrak eta ónek lekeixarrak-eta ibiltxen dis arrastan, orretakidxi ba, bariaue be arrain gidxau ataraten dauiles, guk estu atarate-san atune: kásan¹, pikien. Da gero-

dxakingo sus esta?

bai, bai, bai, bai, sati batxupai, nik e dakidxin danak esango txutes-da..

se nik eiñdxot Mundekan be bai, mariñero bategas, igual esetuko su igual, Dimas Zaldunbide?

Dimas? entxuti dakot, entxuti dakot, bai

mundekarra bera

bai, patroye esan da ori. Bai, bai, entxuti dakot

ori da Bermion ikusteko selan esaten disen orrek berbak eta arrañen ixenak... Emetik eta Mundekara estau igual diferentzi andirik esta?

¹ *kasán* da azentu normala.

es, esto pentxaten, esto pentxaten ongo danik, unicamente ba beti oten da a déjotxue, a berba eikerie edo baye, ostantxien e

su ibil sara mundekarrakas-da..?

es, mundekarrakas enai ibilli, bermiotarrakas, da gallegukas da (...)

orduan su bermiotarra sara esta?

bai!

da aitxe ta ama be bai bermiotarrak, bidxek?

bai, bueno gure aitxe esan san e, ameku, Markaida, bakisu (or) aldie bat, alditxu bet, ángu² esan san. Bay³ ostantxin e berton bisi, eskondu te berton bisi, arraintxalie, gure aitxe be... Neu dxaidxó ta aitxe ill, oseake nik estot esetu aitxerik

orduen sure euskerie ameku- ?

ba amekue, bai. Bermioku euskera sarra

nik esango tzut erderas ta suk eskueras, da igual espadakisu erderas eskueras esango tzut gero bai, oseake suk érderas esan niri txe nik éuskeras, bai

“lamprea” erderas esaten dana?

lamprea? Lánproye, lánproye, ori de, bai, lánproye, ori itxen da arrañeri, olan pega, da txúpe odola, lánproye

orrek atrapatzen dis edo?

es, orrek itxen dis eurei arrañei, seroyei, e isurdei, da órrei pegá, da itxen txo, eridie, oseake odola txúpe, da eitxen txo eridie, sillue

selan esango lekisu “hemos visto dos lampreas”?

lánproi bi ikusi du

“ganabota, boquidulce” entzun su erderas?

boca?..

boquidulce, ganabota

..

entzun su “gardie”?

gardí bai, gardie ba, gardie, esaten txagu guk, euskeras, bai da... se-sango txut, se arrain klase esango da ba? Es e, tiburoye txe⁴ órren familiku da, lisie ta marraisun e familikue

andidxek es?

bai, andidxek, txikidxek

atrapa su olakorik suk?

bai, (baye) estaui balidxo dxateko, bueno emen e asala kendute, emoten txoye aldianui txe dxaten (esta?), esati les (estauinari) esetuten baye

len esan dxaten ori?

len esan dxaten (ori), oin dxaten da, asala eitxen dau kendu, da saltxin (dau) itxukidxe edo

² ángu azentuarekin galdegaia adierazten du.

³ bay transkribatzen dut baye, baina dela adierazteko, bay eta bai ez nahasteko.

⁴ txe forma ilogikoa da hemen, -i-ren ostean erabiltzen da normalean eta. Berak ere ez du hola erabiltzen normalean.

(dalakuen), itxúkidxe da “colario”⁵, erderas, da itxukidxe bai

selan esango lekisu “hemos cogido dos”?

ba gardá bi atara du

da “tiburón” selan esaten su?

tiburón, duróyé, duróyé, duroye esaten txagu guk dos tiburones?

duroi bi

esu esaten beste modo batera?

es, guk Bermion duroyé tiburoyeri

da “tiburoye” esu esaten?

es

“tiburoye” erderas da?

bueno, e, aña emen erdaldun asko deu, igual e erdaldunekas da ibiltzen (gariseles ..) barkuen, ba igual baten batek edo gallegun batek “hay un tiburón”, baye, éuskeras bágaus bérbetan duroye da entzun su “itxas-otzue”?

otxue? Emen es

duroye esateko diñot, itxasotzue?

es, itxasotzue. Éspada ónek giputxek edo esango txoye? estaipa, “lobo de mar” bai baye érderas. Guk emetik estaueles lobo de marrik, estaipa. Neuk estot entxun e? sekule

marrajo?

marraisue, esaten txagu guk

dos marrajos?

marraiso bi

“peregrino” entzun su?

peregrino?.. emeko itxosokoo ur gasataku da edo kriseletakue?

bai, itxosoku da, marmok arrañe?

marmok arrañe bai, bai, marmok arrañe bai, baye “peregrino” estot (entxun)

pentza dot ori dala, marmok arrañe, andidxe da ori?

marmok arrañe ba andidxe da, batxuk andidxeties, andi-andidxek, batxuk

normalien semat metro ..

e ba idxe ba seroyen bésteku esaten da

sei metro?

seroye, seroye, “ballena” erderas, seroye, aren béstekue, txikidxaue. Esaten da pekádune ukusten dias orrek?

emetik gitxi, Dákarretik-eta órrek ikusten dies, emetik gitxi, emetik aulan marsopak-eta (aulan), ostantxin e, orrek e, (pentxaten dot ur berutakutisela), pentxaten dot neuk e? estaitx

da “colayo”?

colario, colario, entxuti dakot, colario, sera, itxukidxe, bai, bai, itxukidxe, bai, eske (erderas ...) nasta eitxen nai, itxukidxe

Mundekan estauie esaten itxukidxe, kolaidxue

a kolaidxue, guk itxukidxe, bai, da gero deu itxukidxe laku bat, beste bat, arrain bet e.. e asala

⁵ “Colayo” arrain-gidetan.

dako sera, “picharroza” da érderas, da *pitxarrozi* esaten txagu guk. A da ba látxaue, au kolaidxu da fiñaue dxateko, da gosu(aue) be bada

au de pitxarrozie [liburuko argazkia erakutsiaz]?

ai esta... ai bai au de, bai, bai. Bueno itxukidxe be antxera da e? Itxukidxe da ba, asala dako ba fiñaue, da pitxarrozitako asala ba...

bastuaue?

bai bastuaue, ordinaidxuaue

mantxatakos onek

bai, bai, bai, itxukidxepe mantxetakos baye, seraue, da onetako, pitxarrozik (alako mantxek okitxen txus)

au da...?

bai, orretako pitxarrozin antxa

dos colarios? selan esango lekisu?

itxuki bi

pintarroja?

ori pitxarrozi esaten txagu

dos pintarrojas?

pitxarroza bi

orrek atrapatzen dies ero?

bai, bai, onek asko, onduen, ondun onek beseuten ba itxukidxe-, naiko ataraten dau i ónetan egúnetan

entzun su erderas “gata, alitán”?

gaza?

gata, alitán?

...

entzun su “momie”?

momie bai entxun dot, bai, momi bai

bakixu seiñdxen?

... esta, es, da dakot, entxunde dakot aulan momie ta.. bai, da estaitx e

olako bi?

moma bi esango da?.. Estaipa

len esan su “tiburoye” estala esaten es? da “tiburoid asule” entzun su?

bai, tiburoyek klase askotaku(k) oten dies, bai, guk Afrikan asko ikuste-san du, da guk *duroye* esaten txagu danai, oseake nai asule-, nai klase bat nai beste bat, estules e ulertuten selaku dan, ba, danai tibu- *duroye*, bai

erderas “cazón, mozuela”?, entzun su?

cazón, mozuela?.. idearipes

entzun su eskueras “tollé”?

tollé bai, tollé da.. selan esango txupa? Angiri laku da, esta? Tollé, bai, bai, tollé entxun dot

da ukusi be bai?

bai, bai, bai, da ba, se-sango txupa? Angiri laku da baye en bes de angiri lodidxaue

au de?

es, es. Es

bekue bes?

estaipa. Guk tolle deitxute-san txagune da, angiri lakue.. e gorputxe dako biribillaue

olako bi?

tolle bi

erderas “ca- cazón”?

cacazon?.. idearipes, eske erderas be

“kasoye” esu entzun?

kasoye?...

au esta kasoye, au goikue?

... estai(pa), etxut esango, estaitx(ena).. Gardien antxa áunetako. Oiñ e gardi-saten dala ba asule, estaipa

esu entzun ori...

lisie bai baye, lisie orren aldin andidxe da. Da baltxa, asala dako (aulako) marroye, illune

“mielga” selan esaten da?

mielgie? Mielgi esaten txagu guk, bai, mielgie

dos mielgas?

mielgá bi

lija?

lija, entxunde dakot, baya auri espada, pitxarrozi espada, (...)

lixie? esu entzun lixie? lixie ta pitxarrozie

bardiñeties?

es, pitxarrozi da itxukidxe laku, como colario, da lisi da..

au de?

antxekue baye andidxaue, au len urten dauen-, (lengu lakue)

kasoye

andidxen, beorren antxeku (baye) baltxa, lisie

onen antzekue lisie?

bai, andidxaue(k) onepaiño, (aurren) antzekue, bay andidxaue(k), olako (brasa...), orrek ataraten dis urándidxen, ba irureun metro, lareun metr(un)

orduen esties bardiñek es?

es, lisie deitxute-san txagu atxiñe, geuk. Bueno, Bermion, oiñ estaipa erderas selan dakon isena

“lija” pentza dot dala, estaitx e

igual esango da ori

dos lijás?

lisé bi

pez angel?

angel?.. erderas da ori?

entzun su eskueras “billaue”?

billaue?.. es

getaidxarrak ero atrapate sauila ori atxiñe, saltziko ta okitxen sauila gero uretan sartunde, da andrak dxuten sila eskatuten atara bat edo, saltziko edo, uretan sartunde, getaidxarrak-eta, es?

(da setako okitxen dau) uretan, fresko oteko?.. idearipes

lisie esan su len, esan dostie len e bermiotarrak atrapatzen sauila ori

bai, lisetan, bai, bai, bermiotarrak bai. (Ori) galdu dis baye len asko, dis e a(u)lakuek, baltxak, igiritxen dies e tripétik, sabalien da aragidxe dakoye suri-suridxe

len bai atrapatzen san es?

bai, len asko, bai

“tremielga” entzun su erderas?

tremielga?

eskukarie?

eskukeri bai, bai, eskukeri bai. Esk(o)keri da, arraidxi lakue. Da, bustenetik agarra ta kalanbri emoten dau, bai, esk(o)keri, orreri esaten txagu esk(o)kerie. Da arraidxi lakue, txikitxue, bueno badaus e, asitxuaupe badaus, da bustenetik agarra esketero kalanbri emoten dau, bai

ser da erridxoko arrañe?

es, es, itxosoko (erridxu da), bai, arraidxi laku da, olan sapala, iguala-iguala, ba seuser illunaue, arraidxi da ba sérau, argitxuaupe baye bera lákue

bustenin dako sua edo-

bai, bai, bustenan dako (a) sué da-, agarrakeran kalanbri les emoten dau, oseake salbaidxuk eitxen dauena estau itxen, salbaidxuk itxen deu ba, sue sartxin dxatxu ra! anditxu, es, edxatxu anditxuten, kalanbrie, eletrisidadik e sertxi les

suk ukutu tzasu?

es, nik es, esaten dauie, bai

raya común, raya?

arraidxie

dos rayas?

arraidxe bi

da len esan sune “eskukarie”

eskokerie, eskokera bi

arraidxie, au de arraidxie?

bai, ai esta, bai, au, da tramaye be da, eskokeri be da... eskokeri (da au) tramaye, oneties iru fameli(ko) antxekuek, amen dako bustenien agarrakeran e kalanbrie, baye ostantxin antxekutis, bai, arraidxie, eskokerie ta tramaye. Tramaye esaten dauie dala énbrie. Esaten dauie enteniduk edo

entzun su, arraidxe klase batzuk, “basatako arraidxie”?

es

“arriko arraidxie”?

bai, arriko arraidxi bai. Bai, en jeneral e, au arraidxie, emen ataraten dana, basataku da, oseake esta arrikue, da pláidxekue larogei brasan or, larogei brasan dakosu basie, da gero semat (ondo- urandidxauen, aur) dator arridxe. Da en jeneral (aur) ataraten da, larogei brasan, or buéltan. Bermion e?

da “chucho, rata”, auntxek esan su es?

tramaye edo

eskokerie?

es, bestie, tra-

tramaye, tramaye

olako bi?

tramái bi

antzekutis orrek danak es?

bai, bai, bai, ba fameli batekuties, ba, atune ta simarroye esati les, atune, da simarroye, atunetakola eguek lusiauek, da simarroyetakule, egóo laburrauek. Da érderas e deitxuten txoye,

atuneri, simarroye, edo simarroye geuk deitxuten txagune, érderas “atún” deitxuten txoye

alrebes

alrebés, bai. Da guk deitxuten txagu atuneri, ego lusiri, egalusie

egalusie, suek olan esaten sue?

es, es, atune, egalusie esaten txoye Gipuskoan. Egalusie ta egalaburre, bai

suk badakisu gero Gipuskoan be selan esaten dan da esta?

bai, bai, arrain danak es, ba aulan e, eurekas berba itxen dules da.. ulertuten txagunin e? seixtik sarratun asten disenin e, etxagu enteniten

eurepes suei igual esta?

eurek erresau guri, bai, eurek erresau, esaten dau guk estakigule bérbetan, bermiotarrak

esta egidxe ori

(alan) esaten doskue éstakigule

broman esango dauie

es, es, bénetan, bénetan, batzuk, bai, oseake, oker, txarto eitxen dule (euskeras berbetan)... Es, emen e Bermion ondo eitxe-san da atxiñen, bai, oiñ e berrogei urte ta berrotamar urte, gero ba au kanpoko jenti etorkeran, ba dxun da beti ba *balkoye* ta, érderasko berbak ba nástaten. Baye atxiñen? Ni akordaten nai, ni txikitxu nayela, itxosora ibil nayenien, gure patroye, esateko “erritxik urten du”, seixtik atxiñen esta on radarik, da radidxoripes, urtete-san du portotik da itxosun topate-san dunin enbarkasiño bat, txalupe bat, (geure) lakue, nai e, nai giputxe ba errime, ba esateko semat atún atrapa dauen da non atrapa dauen. Da esate-san dau gure patroyek: e, esateko erritxik urten dule, esate-san (dau) “liorretik ata(ra) gaitxus”, atxiñen e? Oiñ e berrogei urte

oiñ esta esaten

oiñ esta, oiñ (o)rrek esti esaten, oiñ esaten (da) “urten du erritxik”

ta len selan esan su?

liorretik ata gaitxus, liorretik ata gaitxus, ondo, atxiñe ondo eitxe-san da euskeras

orain be bai

bueno bai, oin be bai baye, aunek, onek imiek eta entre erderas da nástie, (alperrik galduten) dauie euskera gustidxe. Da gero aunek kanpotarrak etor disenape bai

kanpotar asko esta?

bai, da, bentanie, balkoye ta, erderas, eurek e euskeras ikasten pentxa alan dala ta erderas násta, gause gustidxe(k)

ori esta esaten emen bakarrik, leko askotan esaten da ... niri gustaten dxast emeko eskuerie

es e asko dako, bueno ondo eitxen da esta? baye, erderasko gause asko dakus e nástata. Onek giputxek, niri giputxena gustaten dxast, giputx(ek) eitxen dauie politxo, da eurepe bákoye

duroa, duroa esaten dauie baye bákoye eurepe
berbak baye

rata de mar, borrico” entzun su erderas?

estot entxun bes

eskueras “*itxaskatue*”?

itxaskatue bai, bai, a bai bai bai bai bai.. dies e,
bai bai bai, itxaskatue euskeras bai, da sera, da,
saldidxe lakue esta? bai

orrek koipie emoten dauela

bai, bai, koipe asko okin bi dau, bai, bai, entxuti
dakod nik, bai

da gerra-bueltan edo orregas koipias
erreten sala- arrañek edo estaitx
estaitx

olako bi?

itxaskato bi, itxaskato bi

arenque?

arenque? bai arenki ba sardiñe andidxe

eta eskueras?

sardiñi esaten txagu guk, da ónei txikidxeri ba
parrotxie, *parrotxie*, onek txiki-: San Antonio
sardiñie, txikidxaue, a da San Antonio sardiñie

legesko sardiñi da ori

esaten txagu *parrotxie*, San Antonio sardiñie. Da
besti ba sardiñe andidxe

da “arenkie” esta esaten?

“arenkie” esta, emen Bermion esta esaten, arenki
esaten da, atxiñe selan etorte-san da barrilletan,
saltxiko déndatan da ya.. ya sertunde kúreta edo,
(prentxata) áurdun bai, arenkie, ostantxien
(itxosotik gidxenak), emen Bermion *sardiñie*,
sardiñie edo *parrotxie*, *parrotxie* ba txikidxaueri

olako bi

parrotxa bi

esateko “espadín”, entzun su “arinkoye”?

arinkoye bai entxun dot, oiñ estaitx e, sein arrain
dan, da entxun eiñdxot

suk esu atrapa olakorik?

es, es, es, entxun eiñdxot, da estaitx selaku dan

olako bi

arinkoi bi

da “sardina”?

sardiñie, esaten txagu

da bi?

sardiñe bi

orrek sardiñie ta arinkoye antzekuk esango
dies esta?

bai, orrek danatis e, arinkoye da ba andidxaue,
dako asúr gidxau, ordinaí-, bástuau dxateko, da
andidxe. Da sardiñi da ba txikitxuaue, da gero au
San Antonio sardiñie, txikidxaue, *parrotxie*,
deitxuten txagune geuk, a da gosue dxateko,
bestik dako ba arenkik eta sardiñe andidxetako
asurrepe ba, asúr gidxau, (...) asurre, da dxaten
be ordinaidxuaue

“sabalo” erderas, sapalue?

sapalue?, sapalu entxun dot, sapalu-sapalu-
sapalue.. *sapalue* entxun dot, selan da? entxun dot
da estaitx e

Mundekan esan dostie sapaluixik e sardiñ
antzeku dala, tripan dakola, olan pasata eskue
pintxotxu les topaten dxakola

bai, bai, (bai a da) sapala esta? bai, bai, sapalu
bai

txikidxaue dala sardiñi baiño

bai, bai.. bai bai bai, e, ori atrapatzen da asko,
Áfrikan. Áfrikan (ataraten) dau asko, Dákarren
da, órretan

emetik es?

emetik e gitxitxuaue, badeu, emen, kostan,
Frantxiko kostan be badeu, baye, bai. Da
sardiñin sera, baye.. látxaue, seuk esan sun
modun len tripetik pasata dako-

pintxotxu les

bai pintxu les, latxaue, sera, da eskami be gitxiau
dako sardiñipaiño, bai, sapalue

da sapalue ta kolaidxue bardiñeties?

es, sapalu da sardiñie laku antzeku-an- igual-
igual, da kolaidxue itxukidxe da. E, ori, kolaidxu
ta selan da besti sardiñi (esan txuye) esan sune?

arinkoye?

es, es, besti áuntzek esan sune, sapalue! da
sardiñi da ba berdela ta makaela esati les. Antx-
antxa, baye.. klaro! Beitu arraintxalipaki, baye
kanpokue bat alan sekule estauena ikusi ba igarri
bes. Estana sardiñie edo..

“pez hacha, saboga”, “alaxie” entzun su?

látxie?

alaxie, latxie arrain bet-a?

.. a estot entxun

da “latxie” esan sune arrain bat-a ori?

es, latxie, latxie, entxunde dakot, da estaitx
arrañe bada

alaxie, es?

.. oseake neuk estot esetuten, entxunde dakot, da
estaitx e, ser dan

da “anchoa” esateko?

antxogie, ba antxogie geuk, geuk bermiotarrak
antxogi esaten txagu txikidxeri, da andidxeri
*bokarta*⁶

estis bardiñek antxobi ta bokarta orduan?

bai, bai, (andidxeties) baye, bat-a⁷ tamaño
txikidxaue, da besti bokarta da ba asidxaue, ba
igual irurogei killuen, berrotamar, berrogei,
(orretis sartxin disen granuk) killuen, da bestities,
antxogie ba, irurogei, irutamar, ba txikitxuauek

olako bi?

antxoba bi, bestie bokár bi

nik pentzaten nauen bardiñek siela,
bokarta, antxobie

⁶ Txiki-handi bereizketa hau Markaidari baino ez diot
entzun.

⁷ Bat da interpretatzen dut eta ez bata.

bai, bai, bai, igualaties, (bata dala) andidxaue, da besti ba txikidxaue, baye ostantxin igualak, bai pez plata?

..

entzun su abuse?

abuse bai, odol bakue, bai. Da ori atxiñen (asko atarate-san da aunetan), portutan, oiñ esta... desagertu eĩndxe, bápestu eĩndxe. Ori de, ori dxaten dauie Sananderen asko bárretan, imintxen dauie, antxoba txikidxen moduen, prijite, daa, txikito bat edateko-edo, abuse, bai, orrek estako odolik

Mundekan esaten da persona batek espadako arrankerik edo "su abuse sara su", Bermion be esaten da ori?

bai, Bermion be -barre- bai, bai, bai, odolik estakoles, bai, abusek estako odolik

esan dostie Mundekan klase bi dausela, bat portun ibiltxen dana, da beste bat kalakue

a ba estot e, esto dxakin nik ori

kalakue, beste bat-auela

a ba esto dxakin, portoku bai, portoku dxakiĩdxot, sarritxen (imiñi itxe-san) dies, sarritxen asko atxiñen, sedasukas, olan e puntál andi bet imiñi sedaso andidxe, atrapatzen, etxa masidxe, da saltxiko. Baye estot, kalako ori estot esetuten, abuse. Portokupai. (Seitxik) en jeneral txikidxe da antxobi laku alaku da, da odolik estako, suri-suridxe da

dxaten da ori?

bai, bai, bai

olako bi?

abús bi

pez luna

pez luna?..

entzun su eskueras "atalue"?

a bai, atalue, bai, ori de pez luna? atalu bai, bai. Atalu da, dana dako grasá, bai, bai, a(u)laku da, papardu lakue, olan biribille, (o)lan, aletakas

au de atalue?

au de!, au de, au de atalu bai, batxuk au dxan eixxen dauie, baye dana dako.. koipie, grasá, bai

suek Bermion esue dxaten?

es, au Bermion esta dxaten, batxuk esaten dau i dxan eixxen dauila

Ondarrun edo. Mundekan esan dostie au asalien ibiltxen dala edo salta eixxen dauela esta?

bai, bai, asalin ibiltxen da lotan-lotan, eguskidxe dauenin, eguskidxe ta egualdi ona, ba lotan-lotan asalien

da Mundekan esan dostie iru bidarren saltaten badau eskualdune dala atalue, entzun su ori?

-barre- e? ke ba, orrek esajeraties, bai, esajeraties esu entzun ori?

bai, entxun dot ori, da ori esaje-, neuk esto pentxaten ori e?... Entxun dot ori baye, estaipa, neu pentxaten dot ori esajeri dala

olako bi?

atalo bi

"anguila" erderas

anguila?, bai, angirie, angirie, da bueno angirataus e.. asko daus, klase askotakutagos, angirie, baltxak, gero emen deus e portokuek sarditek deitxuten txagune guk, sarditie. Orrek ataraten dies portuen, basie daue lekuen, amen Bermion asko.. aur basatxan, da ya itxosokue, kálakue, a da ba garbidxaue

au de esan sune?

seiñ? au esta?

1 B

.. kálan, arridxen

orduen "sarditie" esta au?

es, es, es, ori.. angiri da ori. Sarditi da, txikidxaue esaten da, au tamañue da, (..) me-, métxuaue, onetis e... se angiri lodidxe da, bueno badaus txikidxauepe bai, ba andidxe- andidxepe bai, oseake, sarditi da, amen portutan ataraten dana, txikidxaue, ónek BÍlbotik etortzen dis asko, BÍlbon balidxo dau, díñoye, balidxo dauela asko, sarditiek. Da etortzen dis ona Bermiora asko sarditan⁸

olako bi?

sardite bi

bestie esan sune

angire bi

badau bat "angira morie" ero?

.. estaipa, angirek e klase askotak(u) daus-da). Klase askotako angiretaus, angire baltxa

au edo, goikue?

bai, bako onek, bai, angirin antxa bai.. Bako angirin antxa bai

"angire baltza" badau bat?

bai, entxuti dakot nik, neuk estot esetuten baye entxuti dakot, angire baltxa dauela, oiñ estaitx, seitxik e.. guk lebatxa be, edo angirie, selan da?.. "congrío rosado", emen Bermion esta ataraten, da nik, neu Txilen on nayenien, total asko, da total gosue, nik dxan nauen da lebatxa baiño gosuaue, da emen esta ikusten. Orreitxi(k) diñot klase asko-, angirepe klase asko(takuk) dauseles, neuk estot esetuten baye, esaten dauie angir(i) be baltxa bádauela

"paparda, aguja", entzun su "akulie"?

akulie?, bai, e ba akuli esta dxateko gero

es?

botakarra bai

baye entzun su esta?

bai, bai, akuli da, selan espliekotxupa? Amen portun-da ibiltxen da, arráin txikidxe ba,

⁸ Ez da entzuten ondo sarditan edo logikoa litzatekeen sarditetan den.

txitxarro txikidxe, dxaten-da, arrain txikidxe, eskire kumetxuk eta orrek dxaten, botakarra da, a bai, botakarra da bera lakue, bay gosu(au), garbidxe. Ori ataraten da itxoso kánpuen, udien, botakarra. Da imintxen dauie látatan, konserban, botakarra. Au akuli es, akulitako, e gústo santarra, gardik okitxi les, a txise useñe edo, gusto santarra dako akulie da esta dxaten. Bay botakarra bai, botakarra gosue, botakarra be sera, látatan be imintxen dauie, goso. Dies antxekuek

olako bi?

botakar bi

da akulie?

akule bi

da botakarra ta lantzoye bardiñeties?

lántxoye, bai, lántxoye, Gipuskoan esaten txoye lántxoye

Bermion esta esaten "lántxoye"?

es, botakarra, esaten txagu. Dana da, lantxoye ta botakarra bat-a, bai

"lisa, mujil", entzun su "lasune"?

lasune? bai, (..) "muble", lasune, bai, bai

portun da ibiltxen dana

bai, orrek da-, bueno gero deus, or be klasiteus, e, lasune da "muble", baye gero dau beste bat, lasune, korkoye deitxuten txagune, ónetan dako, e sakátx e, oridxek, oritxute, aulan e pekátxu bi, ba dies e famili batekuk, bidxek e lasunek. Bidxek txarrak dxateko, bueno lasune itxosoku ona da, bai

portokue da-

portoku da txarra, portoko sera gusti(dxek) dxaten txus-de, saborreidxe gustidxek eta loidxe gustidxek

da "mublie" esaten da?

es, lasune

erderas da "muble"

"muble" érderas da bai. Bermion lasune esaten da, oiñ estaipa ortik, Gipuskoan-da selan

olako bi?

lasún bi

da korkoye esan su, olako bi?

korkói bi

da lasune, klase bat da "ondo-lasune"?

ondo-lasune?.. Bai, e, ondoko.. emen esaten txagu, lasune, garbidxeri, itxosokuri, ondoku edo itxosun dabillena, da besti(ri) emekuri esaten txagu ba lasune, baye, estaipa batxutan sartun eitxen dies-da..

pez sable?

pez sable?, bai, esetuten dot baye, estaitx selan dan, éuskeras estaitx selan dakon isena, da-

"sable"?

sáblie deitxuten txoye emen, Bermion, sáblie, bai, da lusie, bai

ukusi sus e..

bai, bai, bai, bai sarritxen ekarten dauie emen, kálatik, orrek palangris ataraten dauie, (onek) lebatxetan dusenak, onek motor txikidxek

da alako bi?

sáble bi

da "espadiñe" entzun su?

espadiñe bai entzun dot, oiñ estaipa éuskeras selan dan

"sable" ta "espadiñe" esties bardiñek?

batxuk ónei deitxuten txoye sáblie, beste batxuk espadiñe, (orain) estaipa, bidxe bapadies edo.. espadies

segun nok esaten dauen esta?

bai, Bermion espadiñe, batxuk deitxuten txoye espadiñe(k), beste batxuk sábliek, oiñ estaipa selan dan

da "pege, rey" erderas

pege, rey..

erderas esaten tzojena "el rey de los besugos"

a bai!.. Guk deitxuten txagu, bueno Bermion esaten txoye beseu e górridxe, da.. auntxe selan esan su? Itxosoko erregie, errege górridxe. Errege górridxe, bay esta.. papardo górridxe da ori

ori "el rey de los besugos", papardo górridxe?

papardo górridxe, bai, bay da ba beseue baiño sabaltxuaue, apur bet, beseue istuaue da, sabaltxuaue

emen diño "el rey de los besugos" abuse esaten dala Bermion, baye abuxe esta ori esta?

es, es es, abuse esan txu(t) len. Bermion abuse deitxuten txagu, geuk Bermion, ori odol bakoo.. ori arrain txikitxu, bokarta laku da, suri-suridxe, odoliek estakoles, suri-suri- a da txikitxu, da ori dau portutan

el rey de los besugos da papardo górridxe?

ai está, papardo górridxe. Batxuk deitxuten txoye "el rey de los besugos", baye en jeneral (emen) Bermion, jeneralien, papardo górridxe

da palometa?

ori, papardue, bai, palometa

ta papardue ta papardo górridxe, antzekuties?

es, e papardu da.. (selan esango txupa), papardu (da aulan), papardo górridxe lakue, baye papardu da ba au kolorie, esati les e, grisé, da besti da górridxe, papardo górridxe. Da besti da, palometa, (...) alakue, baye au kolorie, bueno grisé

illune?

bai, illune

da olako bi?

papardo- papardo bi

"mero de roca" selan?

mero de roca, guk merue deitxuten txagu, itxosoko merue, merue

da gero entzun su "asaleko merue"?

bai, bai, orrek oten dies igual e.. selan esangotxupa, igual e, egúr sáti andi bet, pálo andi bet-edo, da aren aspidxen, en jeneral oten dis arrain txikitxuek, da órrek merúpe bai, oten dies arek dxaten-da, itxosuen. Igual seoser itxosun e, sarritxen igual ba ostakulun bat edo bedar pillu igual, sarritxen dxun garis ba errime bertara ia meroripako, da atrapa be bai, apáidxukas, sarritxen atara du, ba esaten dis txikidxek. Ba ónek merúek, emeko kálakuek, esaten dis ba andidxek, bos- sei killokuek

da badau bat "mero suridxe"?

... estaitx, entxuti bakot nik bádauela, oiñ estaitx, neuk etxut esango

baye "asaleko merue" bai entzun su esta?

bai, asaleko meru bai, bai, bai, bai ikusi be bai, da atrapa be bai sarritxen, da sarritxen itxen da asko bádeu, árti bakosu barruen, berari ojeturi, etxadi egin, ártias, da danak atrapa, gitxi bakos ba apaidxukas, prepara apaidxuek, da imiñi bokarta edo seoser imiñi txe, nopera(k) dxateko

da "ondoko merue" entzun su?

bai, ondoko meru bai, (or) ondoko meru da ba aurrek, kalan dausenak, andidxek, badaus txikidxek esta? baye en jeneral dis e lau, iru killo, bos killokuek

da mero baltza?

estaitx, entxunde bakot, oiñ estaipa, entxunde dakot, mero baltxa, da mero suridxe

arrain gosuek es?

bai, bai, bai, esaten dauie, total dala gosu-, bueno! itxosoko arrañi(k) gosuna dala esaten dauie, ori txe lupiñe, estaipa

"cabrilla" entzun su erderas?

cabrillas? ka- kabratxupai, kabrak, kábra gorridxek, txikitxuk

da "kostako kabrie"?

kostako-, kostako kabrie, kabra txikitxuek, da itxaskabrie, ba andidxaue. Orretis (kalakuk dausenak), guk deitxuten txagu *itxaskabrie*, (a ya) andidxauek. Da onek, kostakuek, kabra txikitxuek. Da, gero ba, kostan ataraten disenak txilipitxeruek, bueno ya orretis beste klase bat baye kábrin antzekutis árepe. Mundekan be *txilipitxeru* deitxuten txoye

es, estot pentzaten, pentzaten dot "lulak"

ai lula, lula bai, bai lula bai, julia? julia edo lulia edo álako bat

da suek txilipitxerue?

txilipitxeruek, bai

isen politxe dako. Pentzaten dot emen *dauela*

bai, dis e kábri lakuek, arrain politxek

au de txilipitxerue?

ai esta! bai, bai. Batxuk oten dis e olan, oridxen, total dis politxek, oridxek, da gorridxek, da bai..

pentzaten dot Mundekan "lulak" esaten *tzoyela onei*

bai, bai, entxun dot, bai. Mundekan

da suek "txilipitxerue"?

txilipitxeru guk, bai

da itxaskabrie, ori de erderas "cabracho"

esaten-

ai esta! erderas "cabracho" o "cabra", o cabracho, andidxek, txikidxaue. Orreties kálan, ya ondó andidxen ataraten disenak. Guk deitxuten txagu *itxaskabrie*

da cabracho esta "gonbise" orduen?

-barre- (aurregas) nau arritute, gomise da.. báltxaue, selan esplikekotxupa? Kábri da gorridxé, itxaskabrie da gorri-gorridxe. Da cabracho da, ba, au kolori illuné. Pékatakos, oseake buru be dako andidxaue, da txikidxaue, dxaten gosuaue da, gomise, ori oten da kostán

ori erderas esta "cabracho" be?

estaitx erderas selan dan, *gomise* deitxuten txagu guk, baltxá da bera. Ori ataraten da ónetan e, pláidxetan, kostán, átxetan, da aulan. Da ori itxaskabrie, gorridxe, gorri-gorri-gorridxe, ataraten da ba kálatan, bánkutan, kánpuen

ori bai de "cabracho" erderas esta?

bai, bai

ori dudie okiñdxot, estot dxakin ori bada, *gonbise edo?*

es, es

antzekutis esta?

antzekuties, es, igarteko modun, kábri da a libro gorridxe? Alan gorri-gorri, txikidxek, andidxauek. Gomise da báltxaue, au kolore baltxa, marroi illun-illune, pékakas, burú dako andidxaue, da totuaue, oseake, apur bet e gorputxe au lodidxaue, itxaskabrie baiño, da laburraue, aragidxe total dako gosue, j(a)latiñe dako asko, asalien, total gosu dxaten, ba ori ataraten da, aunek bateleruk-eta ataraten dauie, gomísek, saríkas da arridxen da, ba itxaskabrie ataraten da, e, bánkutan, kánpun, itxasuen, kálatan

da olako bi selan esaten da?

gomís bi o itxaskabra bi

entzun su "burbiñe"?

burbiñe? bai, burbiñe bai, estaitx erderas selan dan baye burbiñe, andidxe-saten da, e? bai, meru lak-

atrapa su suk ori?

es, es, orrek en jeneral bateleruk-eta ataraten dauie

au de burbiñe edo?

ba, onen antxa dako, bada? estaipa, esto pentxaten e? Es, burbiñe esaten da.. berone laku kolori esta? baye, au istuaue ta andidxaue. Au.. popamientun antxa dako onek. Guk olako arrañek, estaipa au báda, érderas selan dako onek?

estaitx "brema blanca" edo bada edo, "corvina" edo

au esta e? Es, onek e popamientun antxa gidxau dako

baye "burbiñe" entzun su esta?

bai, bai, bai, da, bai, alakue, kolori (beorre) laku baye andidxe, (da badaus) txikidxaepe, bai

da olako iru?

iru burbin

entzun su "verrugato" erderas?

verrugato? es, auri es

da "gurbidxe" edo?

gurbidxe?

esu entzun gurbidxe eskueras?

...es -tot entxun

"chicharro" selan esaten da?

chicharro, txitxarrue, Bermion txitxarrue

da olako bi?

txitxarro bi

da txitxarro klase asko dau esta?

bai, txitxarruteus ba, txitxarro arinkoye, batxuk marikoye esaten txoye, ba broman, arinkoye da, txitxarro arinkoy da, txitxarro andidxe. Da (gero dau) kalatxitxarrue, (auri) tamaño ona, orrek be grasá be gidxau dako, kalatxitxarrue, (gero dau) txitxarro txikidxae, au txitxarro txikitxue

da entzun su "txitxarro baltza"?

bai, txitxarro baltxa da ori, kalatxitxarrue. Au au tamañue, orretako grasa gosue, bai, dxateko

da "kasako txitxarrue"?

bai, kasako txitxarro da txikidxae, (aulan ingiru)

da txarraue da?

famili batekuti esta? Dako ba grasa gitxiau, ostantx-

obierna seiñdxe?

obi da kalatxitxarrue, a baltxa

gosuna

gosuna, aretako aragidxe, a dxaten su ba besegu les, grasa dakolakon e ondo

da entzun su "txitxarro buruandidxe"?

baitxe, (auri), txitxarro buroandidxe be bai, alaku esaten da

andidxe?

andidxe bai, baye dxateko santarra

da "txitxarro frantzesá"?

estaipa, ori estot e, esaten da, entxun dot, baye estot esetuten neuk

igual esango da "txitxarro marikoye" esaten tzojena?

igual esango da ori

"txitxarro marikoye" deitxuten tzoje esta?

bai, bai, Bermion bai

ser, broman?

e? e bróman-bróman da alan segidu te gero ba, gidxenak alan segidu

da "salmonete de roca" entzun su erderas?

barbañe? Barbañe, bai, "salmonete" barbañe da, bai

da "kostako barbañe"?

bai, kostako barbañe, bai, gorridxe, "salmonete", bai ori bai, ori.. gosue dxaten, bai. Sarikas (atrapaten) dau ori. Amu(as) be bai (baye) nekés, sarikas

suk atrapaten sus..

es, sekule enai dxun e orretan

da olako bi?

barbáin bi

entzun su "atxako barbañe"?

bai

ser da antzekue?

bai antzekue.. En jeneral e atxán oten da ori barbañe-ta, lau- bare-bare dauenien, baré, itxoso gitxi, bare, ordun sartxin da atxara, itxosu ba altxaten (dauenin) itxen da ba sabaldu

entzun su "itxosoandiko barbañe"?

es, itxosoandiko barbañe?

"mujarra" erderas entzun su?

mujarra? mujarra sera esta ba? Arrá, esta? pentxaten dot arrá dala.. E, arraintxeko imintxen dana, ámun ba- sera, pentxaten dot e? Mujarra.. arrá dala, estait. "Mujarra" entxun dot, oiñ estaitx arrá bada, guk e arra esaten txagune... Bay entxun eiñdxot, mujarra

da "musue" entzun su?

musoye, musoye bai, musoye

ori da mujarra, mujarra da musoye?

es.. musoye. Mujarra.. estaipa selan e.. estaitx, musoye bai

da olako bi?

musói bi

arrañ ona da ori?

bai, musoye da, selan esplikekotxupa? Bedardxalin antxekue.. Ba au lengu- len e ikusi sune a, a sabala? a- áren⁹ antxeku da musoye, bai

da musoye ta popamientue bardiñeties?

es, erdi-antxekuties baye diferentities, popamientu da e.. olan, biribiltxue, da musoye da apur bet e luseru- apur be lusetxuaue, bai, da¹⁰ andidxae, musoye andidxae esaten da, bueno! Popamientupadaus andidxaeek esta? baye.. en jeneral popamientu da txikitxue, aulan biribiltxue, popamientue ta papardue, antxekuek

da arraiñ ona da ori be?

bai, bai, bai, bai. E, sera, popamientu da txillu lákue, txillu esetuten su?

es

txillue, udien e imik selan oten dis e, atrapaten

antxoba kumak edo?

es, txillue, txillue, txilluek, dies e gorritxuek, aulan. Udín ataraten dis orrek, esaten dauie

⁹ áren azentuak ez du pluralik adierazten hemen, galdegaia baino.
¹⁰ da = eta interpretatzen dut, ez izan aditza.

orrek txillo asko badeu, atune be asko ataraten dala, esa-, esakunek e, sárran e gausek. Ba alaku-popamientu da alakue, baye popamientu da suridxe, da txillu da beseue lakue. Asten danien, ba beseu-txillu esati les

olako bi?

ser? txilluek?

popamien-

a, popamiento bi

eta txilluepadies?

txillo bi

entzun su "sargo" erderas?

entxun eĩndxot "sargo" erderas, baye euskeras estaitx selan dan

euskeras e "músarra"?

musarra, bai, entxun dot, bai, da estot esetuten

esu esetuten ori?

es, da entxunde dakot, musarra, da estot esetuten

da musu-musarra?

..

baye entzun- [muxarragaitik]

entxun eĩndxot, bai, da estot esetuten

da "chopa" erderas, sapaterue?

sapateru bai, sapateru da ónen (a) papamientu lakue, da illunaue, báltxaue, sapatero

ser da txarraue edo?

ba estaipa, dxaten e antxekuk esango dis, neuk esto dxan, baye.. estaipa

da olako bi?

sapatero bi

da "dentón", entzun su?

dentón?

burusberakue? badau arrain bet

burusberakue?

.. estot entxun, burusberakue.. idearipes, estaitx

igual Mundekan bakarrik esango da

bai igual (...)

da "dorada"?

dorada bai

selaku da ori?

e dorada klase askota(kuk daus), andidxek, txikidxek, doradi asko, Áfrikan asko, ataraten da doradie

eskueras selan esaten da?

estaitx, euskeras estaitx, *doradi* esaten txagu gupe, atarate-san dunien, dis olan koloriñe-

urrebue?

es, urreburu beste bat-a

bai, beste bat-a?

pentxaten do neuk e? E fijo-fijo estaitx baye neu pentxaten dot urrebue estala doradie, neuk!

entzun su ori urrebue?

bai, urrebue, bai. Doradie, sí, asko, oiñ estaitx euskeras selan dan, Áfrikan ataraten da ori asko. Emen Dákarren-da, orrek e bárkuri segidu itxen txo, (ba kasan atrapa-)

da "besugo"?

beseue

olako bi?

beséu bi

"aligote" entzun su erderas?

aligote?

allueta?

adxueta bai, a(dx)ueta bai, estot esetuten baye entxun dot

entzun dosu esta?

bai, a(dx)ueta bai. A(dx)uta ganera pentxaten dot, estaitx.. arrastan ataraten daue orrek, a(dx)utak

onek igual asko dis arrastakuek

arrastakuk, bai, orrek arrastakutis

da bajuran beste batzuk atrapatzen dies?

bai, se bajuren ba, atúne¹¹, beséwe, lebátxa ta orrek gausek ataraten dies

obienak esta?

ba angiri be bai, da orrek gausek, baye.. arrastan ataraten di ba onek arrain klase txikidxek, asko, klase askotakuk, onduen e arrastigas

bajuran andidxauek esta?

bai, bariasíño gidxau, arrastan

da "breca"?

breca? bai, brekie, bai, brekí da, beseuen antxekue, gorritxue. Gosu da dxaten, brekie

da olako bi?

breká bi. Atxiñen aurrepe portora sartxi-san disen, au, ure garbidxau ote-san danin, oiñ e pentxabes, oiñ itxosun atrapa bi dies, ba atxiñen órrek amen, Ártxan atarate-san disen brekak, aur budxetausen lekun baye ordun klaro ure be garbidxau

oiñ e

oiñ estau, oin kontaminasiñuas esta sartxin orra esebe

"pez herrera" entzun su?

pez herrera?

erridxo arrañe?

.. erridxo arrañe bai, oiñ estaipa, séiñdxen.. entxun eĩndxot, baye baye estaitx, seiñdxen bes da ikusi bes, estot, estaitx

boga?

boga?, bai, bogie

ori bai atrapa su?

bai, bai, bogi- au ataraten da átxetan, neguen, neguen. Mamarru okitxen dau auén

da olako bi?

bogá bi. Baye esta, dxate(kue) txarra da e? Bai, ordinaidxue

maragota, tordo de mar, durdoye?

durdoye bai, entxunde dakot

esu ikusi?

... da asko entxun dot, durdoye, durdoye..

¹¹ Azentua berez *atúne* eta *lebátzá* delakoan nago (beseue-ren kasuan ez nago seguru), baina hurrenkera honetan beste era batera diozelakoa daukat.

*ikusi esketero dxakingo lekisu igual e..
estaitx e, estaitx au bada, es, au da durdoye, goikue?*
bai, esa¹² leitze. Neuk estot esetuten ondo e?
Durdoye, entxuti bai asko, baye.. entxuti asko
dakot, baye estot esetuten ondo

da olako bi selan esaten da?

durdói bi

badau bat e “txárrue”?

**txárrue bai, txárrue.. atrapatzen da, emen
arritxik, ronpeolasen-da. A- txikitxutis, batxuk
“babosa” deitxuten (txoye), pentxaten dot.
Pentxaten dot e? estaitx “babosa” da “txarru”
bapadies.. Aren-, áren antxekuties, (olan
txikitxuk,) estai balidxo dxateko**

da olako bi selan esaten da?

txárro bi

emen dau esan sune len “txilipitxerue”

txilipitxerue, bai

da “araña, escorpión”?

escorpión?

ori, salbaidxue?

erderas da, salbaidxu da ori?

es, eskueras “salbaidxue”?

**salbaidxue (deitxuten dxatxo, estaiba), estaitx (e)
bada**

“faneca brava” selan esaten da?

“faneca” takarta

*Mundekan bat-au salbaidxue, ori, eta beste
bat-au gero “salbaidxo frantzesá”? entzun su?*

**guk salbaidxu dánai deitxuten txagu, oseake, ori
sué sartxin dauena ta anditxuten dana, benenu
dakona edo, salbaidxue**

*Mundekan esan dostie dauela “salbaidxo
frantzesá”, selan da, antzekue esta? baye beste bat
dala*

**(ba) neuk estot esetuten e? Bera salbaidxu bai
esetuten dot, puf! Ori salbaidxu en jeneral,
bueno! au tamañue edo txiki(txuau), ori oten da
asko, pláidxetan, Mundekan be bai, Laidén be
bai, aretan barru(re) sartxin da ori, bueno (aur)
oten dis arek txikitxuek, da ya uretan ba
asitxuauuek, salbaidxuek**

ba sue sartu esketero gero

**bai, ensegida itxen da anditxu, bai. (Ba orrek
esetuten) dot nik, oiñ e frantxesá estot esetuten**

“babosa” esateko?

**“babosa” estaipa, ori bada “txárrue”, entxunde
dakot, “babosa”**

entzun su “otzobabastue”?

otxobabastu bai

arrain bet-a?

seiñ? Ori babosa?

otzobabastue, entzun su esta?

bai

da atrapa su ori?

**es, (neuk) estot atrapa. Ba esan bi deu e, aurrek,
txarru laku(k) esango da, esta? Estaitx, neuk
estot esetuten baye (aulaku da), entxun dot, ba
otxobabastu estot entxungo ba! bai**

da olako bi selan esaten da?

otxobabasto bi

“caballa” erderas

caballa.. euskeras.. makaela

da olako bi?

makael bi, ori gosu da e?

gosu da ori?

*bai, ori latán-da imintxen da, atune les, ondo,
enkanbio bestik berdelak estau balidxo.. bueno! .. e..
fréskotan dxateko bai, baye latarako esaten dauie bonbí
itxen dala, estaitx, e kaballi gosu da, gero grasa be,
koipe-*

¹² *Ezan edo izan aditza interpretatu behar da, ez esan
aditza.*